



# ATXULONDON OTEIZA OSOTASUNEAN

Zizurkilen 'Oteiza, bizirako proiektua' erakusketa inauguratu zuten atzo; hilaren 26ra arte dago zabalik >6

**TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO**

# hitza



**Ostirala  
2009-05-08**

VIIURTEA 1.696 ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

[WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO](http://WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO)



Txileko bost artistek euren lanak egin zituzten Plaza Zaharrean; lau egunez izango dira bertan ikusgai. I. TERRADILLOS

## TXILEKO KALEKO ARTEA EZAGUTZEKO AUKERA

**TOLOSA** Txileko KilturV artista taldeak hainbat ekitaldi burutuko ditu asteburuan GKO arte galeriakoeekin egiten ari den proiektuaren baitan 5

**Bertsoaz ikasitakoa  
plazara atera dute  
ikasleek Leidorren 4**

**Igandera arte  
zabaldu ditu  
ateak Ibarako  
Garagardo  
Azokak 7**

## «Bidea oztopatzen» zutelakoan bi ahari hil dituzte ertzainek

**ALEGIA** Ertzainek bi animalien identifikazio zenbaki okerra eman zuten Foru Aldundian 3



Giza Gorputzaren Museoa erakutsi zieten gurasoei. A. IMAZ

**Giza Gorputza landu  
dute Aresoko  
Eskolako ikasleek 7**



**TOLOSALDEA** GOIMAILAKO L.H.  
INSTITUTUA



# “ATE IREKIEN EGUNA”

**MAIATZAK 12, ASTEARTEA**

**17:00etatik 20:00etara**

Ikasle, guraso, langile, enpresa eta interesatu guztiei zuzendua.

Ikastetxeko instalazioak eta eskaintza ezagutzeko bisita gidatua.

943 65 11 47 • [www.tolosaldea.com](http://www.tolosaldea.com)

Mugikorrean informazio gehiago  
Mezu bat bidali: **TOLOSALDEA** idatziz 5533ra

**Z Zurea da hitza**

Atal honetan zuen kezak, iradokizunak, eskertzak... argitaratzen ditugu ostiralero. Horiek guri helarazteko hainbat bide dituzue: Interneten, 'www.tolosaldekohitza.info' webguneko 'Zurea da hitza' atalean; e-mailaz, 'tolosaldean@tolosaldekohitza.info' helbidean eta 943 655695 zenbakian.

**Barraka eta txosnen kokalekuari buruz bilera**

Oraingoan Udalaren ekimen bat interesgarria iruditu zait. Etxeko portalean bilera baterako deialdia jarri dute. Gaia: barrakak eta txosnak non jarri hurrengo inauterietan. Oso egokia iruditzen zait bizilagunekin honi buruz hitz egitea. Gero de jatzeko arrazo gutxigo izango du. Nonbait jarri behar direla badakit baina bizilagunek zer esan badugula uste dut.

Elena.

**Encounter Usabalen: Ezin al da beste inon ospatu?**

Pasa den asteburuan Usabal kiroldegian ospatu den Encounter-ari buruz nire iritzia eman nahiko nuke. Badira zenbait urte bilkura hau kiroldegian ospatzen dela. Honen eraginak erabiltzaileok pairatzen ditugu, aurreko aste osoan muntaia lanak direla medio eta ondorengoan dena txukuntzen pasatzen dutelako. Hori gutxi balitz, asteburuan kiroldegira joatea ezinezkoa bihurtzen da erabiltzaileontzat, Encounterera joaten den jendeak igerilekua, SPA eta gainerrakoak erabili baititzake doan. Honetaz gain, parte-hartzaileek aldagelak eta topatzen duten edozein txoko erabiltzen dute lotarako.

Ez al da posible kirolarekin zerikusirik ez duten ekintza hauek beste nonbait ospatzea? Leku aproposa iruditzen zait alferrik galtzen ari den ferialekua, bertan leku faltarik ez da izango tamaina honetako ekintzetarako eta abonu bat ordaintzen ari den jendeari ahalik eta traba gutxien jartzeko.

**Usabalgo erabiltzaile bat.**

■ **Luixmiren erantzuna.** «Nire protesta udaltzaingoa kontrat-



Orixe institutukoek Abelino Barriola saria jaso dute. HITZA

koa da: Encounter jaia dela eta, Larunbat goizean Usabalerara joan, eta legez aparkatuak ez zeuden auto guztiak multajari zieten: dozenaka multa. Auto hoiek ez zuten oztoporik egiten trafikoarentzat: autobide azpian edo kamioien aparkalekuan zeuden, baina trafikoa oztopatu gabe. Edozein larunbatetan ere, autoak leku hoietan egoten dira eta udaltzainek ez da sekula agertzen. Joan den Larunbatean bai, kanpotarren bisita ugari izan genuen egunean: nere ustez alferrik da horrelako jaiekin herria promozionatzen saiatzea, etortzen diren kanpotarrei multa bat ezartzen badiagu, berez, delitu gutxiarekin autoa aparkatzeagatik. Eta multak jarri behar badira: jar ditzatela astero, eta ez bisitariak ditugunean bakarrik».

**ORIXE Abelino Barriola lehiaketan saritua**

Orixe institutuko DBH 2. mailako C taldeak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailak Euskal Autonomia Erkidegoan antolatzen duen Abelino Barriola Saria jaso du. Lehiaketa honen helburua ikasleekin irakurmena eta batez ere, de-

klamazioa lantzea da, gaztetzoei behar den erraztasunez, ebakera zuzenez eta doinu egokiz irakur dezaten.

Lehiaketara aurkeztu beharreko lanak honakoak izan dira:

a.- Ezinbesteko testua: antzerki zati bat, pertsonaia hainbat ikasle irakurria.

b.- Taldeak berak aukeraturako hitz lauuko bi irakurgai, bi eleberritarik hartuak.

c.- Taldeak berak aukeraturako bi olerki.

Lan hauek guztiak CD batean grabatu eta sariketara aurkeztu ondoren heldu zaie ikasle hauei ongi merezitako saria. Hori dela eta, Ipar Euskal Herrian igaroko dituzte 4 egun, urriaren 13tik 16ra.

Sari banaketa urriaren izango da Donostian, Miramoneko Teknologik Elkartearen auditorioan.

**Orixe institutua.**

**Gazume salba dezagun**

Dakizuen bezala Eusko Jaurlaritzak Errezilgo Gazume gainean 15 haize-errotaz osatutako Parke Eolikoak jartzeko proiektua aurrera darama, eta honetan hilabeteko epaia besterik ez dago proiektua

aztertzeke eta erreklamazioak aurkezteke.

Proiektu honen aurka gauden askoren iritziz, Energia Eolikoaren Lurralde eta Sektore Planaren II. fase honetan badaude proiektu garrantzitsuago edo esanguratsuagoak gauzatzeko. Izan ere, Gazumeko proiektua beste batzuekin alderatuta askoz txikiagoa da. Ez dugu ulertzen zergaitik eman dioten gune honi lehentasuna. Gainera, proiektu honek sortuko lituzkeen onurak, kalteak baino txikiagoak izango lirarteke. Errota edo aerosorgailu hauek 100 metroko altura hartuko lukete, eta inguruko gain guztietatik ikusi ahal izango lirarteke. Honekin esan nahi dudana da sortuko lukeen inpaktua izugarria izango litzateke.

Aldi berean, Gazumek nahiz Ernio inguruak jasango lukeen ingurugiro eragina ikaragarria izango dela kontutan izanda, Errezilgo Udalak alegazio batzuk prestatu ditu bere desadostasuna adierazteko, eta honekin bat egin dute hainbat elkarte eta Udalek.

Aipaturiko erreklamazio horiek jendeak aztertzea komeni da eta egokia irudituz gero udal horren berronespena lehen bailehen biddaltzea, maiatzaren 13a baino lehen. Alegazioak elkarteko bezala edo modu pertsonalean aurkeztu daitezke. Nahi duen orok, inguruko Udaletan edo mendi elkarteetan eskatu ditzake ereduak.

Gazumeko Parke Eolikoak dela eta hainbat udalek, natur talde eta mendizale elkarteek beraien aurkako jarrera agertu dute. Informazio zabalagoa nahi izanez gero interneten ere beste helbide batzuk kontsulta daitezke: <http://gazume.blogspot.com> eta <http://seodonia.blogspot.com>.

**Erniozale bat.**

**K Kirol jarduerak****Gaur, ostirala****Eskubaloia**

■ Usabalgo goiko kantxan, 19:00etan, kadeteen mailan, Tolosa-Irongo gazteak.

**Futbola**

■ Villabonako Arratzain futbol zelaia, 17:00etan, jubenilen Ohorezko Ligan: Villabona-Anaitasuna.

**Bihar, larunbata****Eskubaloia**

■ Usabalgo goiko kantxan, 10:30ean, infantilen partidak: mutiletan, TAKE B- Aldapeta eta nesketan TAKE A-Eskibel.

■ Usabalgo goiko kantxan, 12:00etan, kadeteen mailan, neskek: TAKE B- Easo San Patricio.

**Areto futbola**

■ Usabalgo goiko kantxan, 18:00etatik aurrera, Nazional Mailan: Laskorain-Laudio.

**Igeriketa**

■ Usabalgo igerilekuan, 15:00etatik 20:00etara igeriketa klasikaren ligaxkako 5. jardunaldia.

**Futbola**

■ Berazubi futbol zelaian, 16:30ean, Gazteen Ohorezko Mailan, Tolosa CF-Vasconia.

■ Usabalgo futbol zelaian, 10:00etan, infantil txikiak Tolosa CF-Añorga.

■ Usabalgo futbol zelaian, 11:30ean, kadeteen lehen mailan, Tolosa CF-Arrasate.

■ Usabalgo futbol zelaian, 17:00etan, Tolosa CF-Aretxabaleta.

**Duatloia**

■ Plaza Zaharrean, 17:00etan, Javier Urkolaren omeneko VIII. Duatloi Herrikoa.

**Tolosa Kup 09**

■ Uzturpe pilotalekuan, 15:30etik 20:30era sei partida.

**Etzi, igandea****Eskubaloia**

■ Usabalgo goiko kantxan, 10:30ean, infantilak: Arrate-Urola.

■ Usabalgo goiko kantxan, 12:00etan, infantilak: Ereintza-Zarautz.

**Tolosa Kup 09**

■ Uzturpe, 15:30etik 20:30era.

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN** agertuko da

**HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle**

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • [tolosaldean@tolosaldekohitza.info](mailto:tolosaldean@tolosaldekohitza.info) / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**FUNERARIA VASCONGADA**  
EHORZKETAK

KONDEKO ALDAPA, 5 • 20400 TOLOSA  
TELEFONO: 943 67 00 40 FAXI: 943 670719  
WWW.FUNERARIIVASCONGADA.COM

ZERBITZU IRAUNKORRA  
902 402 900

# Ertzainek bi ahari hil eta sasietan bota zituzten «bidea oztopatzen zutelako»

**Alegia** » Aharien identifikazioa esateko eta jabea zein zen jakiteko Foru Aldundira deitu zuten baina zenbaki okerra eman zuten.

## ERREDAKZIOA

Joan den asteartean, N-1 errepedean eta Alegia inguruan (Ikaztegiatik etorrita) bi ahari tiroz hilik azaldu ziren sasi batzuetan botata, «ertzainek hilda». Ahari hauen jabea Migel Mari Agirre Amiano artzain alegiarra da, eta berak gertatutakoa azaldu nahi izan du.

Migel Mari Agirre artzainaren bi ahari euren lurretatik atera ziren eta antza, N-1 errepedera atera ziren. Artzainaren arabera, «dakien batek lotu egin zituen errepedera ez ateratzeko eta arriskua txikitzeko. Aharietako bat mantxoa, otzana zen eta lotzeko erraza».

## Asteartean gertatutakoa

Goizean ardiak jeitzen ari zen artzaina eta 10:00etarako ardiak mingain urdinaren txertoa jartzera eraman behar zituen. «09:40ean lagun batek N-1 errepedean ertzainak bi aharekin ikusi zituela esan zidan eta agian nireak zirela esanez. Nik une horretan artaldea txertatu behar nuen eta nire orde z bera enteratzeko esan nion».

Ez zuten deirik jaso eta une batez artaldea albariariekin utzi zuten, errepedera gerturatzeko asmoz. «Baina ez nuen orduan ezer ere ikusi, ez animaliarik, ez ertzainik». Arratsaldean Ordiziako beste artzain baten deia jaso zuen Agirrek, Foru Aldunditik hots egin ziotela esanez eta bere ahari bat errepedean zegoela esanez. «Baina ezinezkoa zen Ordiziakoaren aharia izatea, duela 8 urte baja emanda zegoelako».

Bere lanean jarraitu zuen artzainak eta anaiari errepedera begiratzera joateko eskatu zion eta zera somatu zuen: Osibar parean biondaz barruti aldera belarrazapaldua, ahariak bertan egonda edo. «Horregatik pentsatzen dut ahariak han egon zirela lotuta».



Ertzainek gutxienez hiruna tiro egin zizkieten aharietara. Sasien artean daude oraindik. HITZA

## Asteazkenean ahariak hilik eta identifikazio zenbakiak, oker

Asteazken goizean ertzainei deitu zuten artzainak eta aharien identifikazio zenbakiak eskatu zien, bereak ote ziren jakiteko. «Baina zenbaki hauek gaizki zituzten, guztiz osatu gabe, hain zuzen». Hala ere, «nahiz eta identifikazio zenbaki gaizki eman, ahariak nireak ziren susmoa banuen, baina ziurtatu egin nahi nuen».

Zenbaki okerrak eman ondoren «jakin nahi nuen zein ziren numero egokiak», identifikazio ona, alegia. «Ez zidaten erantzunik eman eta bakarrik akabatu egin zituztela esan zidaten, haiek beraien lana egin zutela eta ez nuela berriz hara deitu beharrik».

Aurreko egunean ahariak sasietara bota zituztela esan zioten eta hori esan zion pertsonarekin harremanetan jarri zen: ondorioz, «hara joan eta han ikusi nituen». Hori ikusita, Foru Aldundiarekin jarri zen harremanetan artzaina, atzo baten bat han azaltzeko eta bi ahariak ikusteko. Hala izan zen, eta argazki batzuk atera zituzten.

Ahari bakoitzak hiru tiro dauzka, eta bertaratu direnek bost kartutxo aurkitu dituzte. Herritar batzuk entzun zituzten tiro hotsak, eta baita ertzainak tiroak botatzen

ere. Artzainak dioen moduan, «tiro bat ematearekin akabatuko lituzkete ahariak. Hura egitera joan dena bereziki gogoia zuelako joan da, hurbil-hurbiletik».


«Nik errua dudala ez dut ukatzen, ahariak nire lurretatik kanpo zeudelako, baina ertzainek identifikazio zenbaki ondo eman izan balute, agian ahariak ez lituzkete hilko». Bestetik, akabatu egin zituzten eta gainera sasietara bota: azken hau ere ez da legala». Izan ere, Foru Aldundira deitu behar da animalia baten hiltzen denean eta eurek joaten dira gorpua biltzera.

Hurrengo pausoa gorpua hartzea da baina honen ardura ez du

inork hartu mementoz, baina seguruena da artzainak berak edo bestela Alegiako Udalak hartu behar izatea. Honetarako ertzainen beharra dute, «errepede inguruan daudelako gorpua eta seguritate behar da». Izan ere, leku arrisku-tsuana daude.

## «Ertzaintzaren ekintza bat»

Asteazkenean herritar batek 112 larrialdietako telefono zenbakira deitu zuen bi ahari hilda zeudela esanez. Bertan honen berri bazutela erantzun zuten, «Ertzaintzaren ekintza bat izan zela, bi ahari errepedea oztopatzen ari zirelako eta horregatik tiro egin zela».



Udalak bost kartutxo aurkitu ditu tiroak egindako lekuan. N. URBIZU

## Udaberriko kontzertua eskainiko du Musika Bandak bihar, 19:30ean

### ERREDAKZIOA

Bihar Tolosako Musika Bandak kontzertua eskainiko du Zerkauasian 19:30ean hasita. Udaberriko kontzertua deitu dioten honek bi berezitasun dauzka: batetik, Iban Gurrutxaga gitarra-jotzaile amezketarra eta Mikel Atxega baxu-jotzaile ere ariko dira, azken bi abestietan. Bestetik, hiru tronboi-erentzako obra bat estreinatuko dute, Jose Javier Gorria, Aitor Gaston eta Eugenio Delgado izanik-bakarlarriak.

Egitarauren baitan hauek dira joko dituztenak: Albinoniren *Adagio*, *Euskal Herriko kantak* (Jose Franco), *Poeta y aldeano* (F. Von Suppe), *Full option* (S. Minnebo), *The swingings bones* (F. Duke) eta *Dancing show* (Josef Hastreiter).

## Laburrak

### Paleta Txapelketako final-laurdenak bihar izango dira

**PALETA** » Gipuzkoako Eskolarteko Paleta Txapelketaren baitan final-laurdenak jokatu dituzte bihar Anoetan eta Iruran, 15:30ean hasita eta alebinen txanda izango da. Hiru mailatako pilotariak (alebina, infantilak eta kadeteak) aritu dira ia astebururo paleta eskuan azken txanpara iritsi artean. Iruran hiru partida izango dira, denak nesken alebinen artekoak, tartean Altzokoak arituz. Anoetan, aldi, mutilen arteko lau (Alegia eta As-teasu) eta alebinen nesken arteko bat izango dira.

### Presoen eskubideen aldeko sinadura bilketa

**POLITIKA** » Amezketan, presoen eskubideen aldeko sinadura bilketa egingen ari dira, eta gaur da sinatzeko azken eguna. Udaletxean bertan 08:00etatik 15:30era bitartean egin daiteke. Alegian, berriz, etzi izango da aukera, goizean zehar, plazan.



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

**arantzazu**

bila dabilzan pertsonentzat - santutegia, kultura eta natura

ezagutu Arantzazu gaur  
uste duzuna baino gehiago da

[www.arantzazu.org](http://www.arantzazu.org)



### Bertsoarekin ikasitakoa jendaurrera

**BERTSOLARITZA** Eskolarteko hiru bertso saio egingo dituzte Tolosan maiatzaren 15 eta atoteko 17an zen ikasitako gazteek eskari zuten lehenbizikoak. Gipuzkoako Bertsozale Elkartak urtero antolatzen du Ahozkoasuna eta Bertsolariak ekimena. Aurten goian Tolosadako nahiz beste eskualdeetako 17.000 ikasle baino gehiagok hartuko dute parte 57 saiotan.

«Bertsoaren eta honek dakartzan balibideen bitartez inidimena, diskurtsoak, garateko gaitasuna, fikuntzarikeko harreman ludioa eta elkarrizketarako balibideak eta arrazoiak kritikoa lantzea» dute helburu, besteak beste, «umore onari leku eginez». Hala, saio edo jaialdi hauetan, proiektu ikasitakoa jendaurrera eramateko aukera izaten dute ikasleek. r.

### Laburrak

#### Kolonbiako egoerari buruz hitzaldia gaur, Otsabin

**GIZARTEA** «San Blas piko Gazte Asanbladak antolatutako Maiatza Gorraren baitan, gaur, 19.00etan, Komite Internazionalistakako kideek Kolonbiako egoerari azalduko dute eta latinoamerikarara nahiz Palestinara antolatzen dituzten brigaden aurkezpena egingo dute, Otsabi elkartean.

#### Javier Gordori ongirotoria, gaur, Triangulo plazan

**POLITIKA** «Ongirotoria egingo dote gaur Javier Gordo euskal preso ohiari, Triangulon Ekitaldia 19:30ean hasiko da, eta bertan, bertsolariak, dantzariak eta tria-partariak izango dira, eta ekitaldi politikoa ere egingo dute. Ondoren, Oregi elkartean afaria izango da. Hara joan nahi dutenentzat

#### David de Jorge sukaldaria, bihar goizean Zerkausian

**GASTRONOMIA** «David de Jorge sukaldaria, idazlea eta gastronomiari buru izango da bihar Zerkausian. Km 0 menu jarriko du, beraz, produktuak jaiotzen diren lekuko kontsumitzairenera arte ahalik eta bide motzena egitea izango du helburu. Horretarako, inguruko baserriak erosteko dizkile lehengaiak Zerkausiko azokan, eta ondoren, han bertan sukaldatuko ditu. Gero, herritarrek izango dute probatzeko aukera razioak banotzeko baliabidez. Slow Food mugimenduarien baitako ekimena da hau, eta Aste Santuan jarri zuten martian, Hilabetero egiteko asmoa dute.

#### Sendotza izango da bihar, Santa Maria parrokian

**ERLIDUA** «Sendotza sakramentu hartuko dute bihar Tolosako leku hemezortzi gartetan, Santa Maria parrokian izango da, 19:00etan. Javier Gordo tolosarra pasa den apirilaren 25ean utzi zuten aske, eta egun horretan bertan egin aitzin herriera herritarrek Tolosan.

# ARTEA GUZTION ESKURA



**INGOTERRADILLOS** Tolosako Plaza Zaharra artea egiteko leku aproposa izan daitekeela ikusi ahal izan zen atzokoan. Izan ere, leku horretan izan zuten Tolosako artistak Kiler V artista taldeak graffitiak egiteko.

Gko galeriako kideekin batera hurrengoaren proiektuak elkarri dituzte, eta igandera arte hainbat ekimen burutuko dituzte. Atzokoan egun osoan zehar hainbat graffiti nola egiten zirenean ilusteko aukera izan zuten Plaza Zaharretik igaro zenak, eta emaitza etzira arte izango da ikusgai.

Bestealde, gaur eskaletan zabalduko dute Gko arte galerian (Kale Nagusia, 4), eta ondoren festa egingo dute, eta bihar Berabiztasun eguna egingo dute kaleko artea. Bertan, txiletarrek eta Gko-koek enozak, arte eta leku egiteko gaitasuna duenokonkhar dezake parte, guztiarentzat zabaldu baitute ekimena.

Gko arte galeriak oso gaitasuna du txiletarren bitartekin. «Mila handiko artistak dira, eta asko arigara hasten berriengatik». Bestealde, herriko ekimenen garrantzia aspimarratzen dute. «Artea herritar guztiak zabaldu nahi diegu, herri guztiak aste dugu beharrezko dela herriek eskatzen».



Egun osoan zehar graffitiak egiten egon ziren Tolosako artistak. Bertatik igaro ziren herritarren ingurmin handia sortu zuen. r. / r.

Donatu Eusko Herriko produktuen azken berria udaberriko eskaintzarekin

**berria**

**Noiz eta nola egin eskaria?**

**berria**

**-30%**

TOTAL LOOK SKUNKFUNK

**Nerbioi Ibaian Gora**

**Nerbioi Ibaian Gora** DVDA

**Maiatzak 9** larunbata **berria**ekin zure kioskoan + 3,40€

**bbk =** **berria**

**KELER**

**Elastiko paregabea, 100 urte paregabe ospatzeko.**

**100!**

**20**

**berria**



'Oteiza, bizirako proiektua' erakusketaren inaugurazioa egin zuten atzo Atxulondo kultur etxean. I. GARCIA

## Oteiza bere osotasunean Atxulondo kultur etxean

**Zizurkil** » Atzo egin zuten 'Oteiza, bizirako proiektua' erakusketaren inaugurazioa; hilaren 26ra arte egongo da zabalik.

### ERREDAKZIOA

Oteiza, bizirako proiektua erakusketaren inaugurazioa egin zuten atzo Atxulondo kultur etxean, Maiatza Saltsan egitarauaren baitan. Marian Lazkano alkateak «Oteizari buruzko erakusketa herrian izatea ohorea» dela azaldu zuten. Oteizaren bizitza eta obrari errepaso ematen dioen erakusketak hilaren 26ra arte dago zabalik.

Oteiza Museoa ekoiztu du erakusketa, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin. Bertan, Oteizaren eskulturaren garapenaz gain beste hainbat arlo errepasatzen dira: bere espiritu esperimentatzailea arkitektura bezalako beste arloetan, bere bibliografia zabaldua, bere produkzio poetiko oparoa edo bere papera dinamizatzaile sozial eta kultural bezala.

Bost unitatetan dago banatuta erakusketa. Horietako batean Oteizaren biografiaren berri ematen da. Beste unitate batean artistaren bibliografiaren inguruan aritzen da. Oteizaren proiektu sozial eta pedagogikoak agertzen dira beste unitate batean. Laugarrene-

### » ORDUTEGIA

- **Asteagunetan**, 11:30etik 12:30era eta 16:00etatik 20:00etara.
- **Larunbatetan**, 11:00etatik 14:00etara.
- **Igandetan**, 12:00etatik 14:00etara.

### Bisita gidatuak

- **Maiatzak 9, bihar**, 11:30ean, gazteleraz.
- **Maiatzak 16, larunbata**, 11:30ean, euskaraz.

an euskara preindoeuropea da ardatza eta bosgarren unitatean artistaren eskulturen berri ematen da.

## Txorimalo tailerra eta txondorra Kultur Asteari ekiteko

**Alkiza** » Bihar hasiko da aurtengo Kultur Astea eta Ikili baserriaren aurrean egingo dituzte lehenengo ekitaldiak.

### ERREDAKZIOA

Alkizako Kultur Astea bihar hasiko da. Asteburu honetan eta datorren asteburuan izango dira ekitaldiak. Bihar txorimalo tailerra egin eta txondorra piztuko dute Ikili baserriaren ondoan. Eguraldi ona egingen badu, haur txikiengatik ibilaldia prestatu dute ere, baserri bertatik aterata.

Txorimalo tailerra 09:30etik aurrera egingo dute eta haur, gazte eta helduek parte har dezakete.

Parte-hartzaileek eraman behar dituztenak: poteak, sokak, arropak, makilak, ... Antolatzaileek jarriko dituzte margoak, taladroak, ... Koldobika Jauregik dinamizatuko du tailerra. Egiten diren txorimaloak ikusgai izango dira herriko plazan.

### Erakusketa garai bateko erramintekin

Bestalde, garai batean txondorra egiteko eta trontzarako erabiltzen ziren erramintekin erakusketa osatu nahi dute. Astean zehar egingo da ikusgai erakusketa. Horregatik, horrelako erramintak dituzten herritarrei deialdia egin diete Udalarekin edo Koldobika Jauregirekin harremanetan jaritzeko.

## Laburrak

### Herri batzarra egingo du bihar ezker abertzaleak

**ANOETA** » Anoretako ezker abertzaleak batzarra egingo du bihar, 11:00etan, udaletxean. Bertan bi gai landuko dituzte: Udaleko legegintzaldi erdiaren balantzea eta maiatzaren 21erako deituta dagoen greba orokorra. Anoretako ezkeriar eta abertzale orori deia luzatzen diete herri batzarrean parte hartzeko.

### Mus Txapelketa eta frontoiaren aurkezpena

**IRURA** » Kultur Astearen baitan, gaur, 22:30ean hasita, taberna eta elkarteen arteko Mus Txapelketaren final-laurdenak egingo dituzte Aizpuru jaitez. Bihar, 17:30ean, frontoiaren aurkezpen herrikoia antolatu dute. Bertan, herriko nesken eta Gipuzkoako selekzioko emakumeen arteko partidak jokatu dituzte lehenengo. Gero, partidaren ondoren, luntxa emango da eta adin guztie zuzenduta *Piano bat bertotan* emanaldia ikusgai izango da.

### Gaztetxearen Urtemugako ekitaldiak asteburuan

**ANOETA** » Gaztetxearen 10. Urtemugaren ospakizunaren baitan, gaur 20:30ean, kultura mexikarreko afaria egingo dute eta 23:00etan Lirio mexikarren eta Akatu taldearen kontzertua izango da. Bihar, 16:00etan, Musikherririk lagunduta *copyleftari* buruzko mahai ingurua antolatu dute. Ondoren Zaparrada batukadarekin kalejira poteoa herrian zehar *Nik ere AHT geldituko dut* lelopean. 21:00etan afaria eta 23:00etan kontzertuak Kantaflor eta Funtastic Planet taldeekin.

### Festa Batzordearen bilera deialdia astelehenerako

**ANOETA** » Festa Batzordeak bilera egingo du hilaren 11n, 18:30ean, udaletxean, eta dei egiten die herriko gizarte eragileei eta orokorrean herritar orori bertan parte hartzera. Bestalde, gogoratzen du kartel lehiaketako lanak aurkezteko epea astelehenean bertan amaitzen dela.

## Infantilak Koparen bila, bihar

### ERREDAKZIOA

Villabona Futbol Elkarteko infantilek Kopako finala jokatu dute bihar, 10:30ean, Donostiako Egia auzoko Matigoxotegi zelaian. Infantilen lehen mailan jokatu dute Villabonakoek eta bere talde-

an lehenengo sailkatu ondoren jokatu dute bihar finala. Aurkaria Lezoko Alleru taldea izango da, beste taldeko lehen sailkatua.

Bestalde, jubenilek eta kadeteek partidak dituzte asteburuan. Ohorezko Ligan jokatu dute jubenilek eta etzi dute partida, Arratzainen, 17:00etan, Azkoitiko Anaitasuna taldearen aurka. Kadeteek ere Ohorezko Ligan jokatu dute eta bihar dute partida Hondarribiaren aurka Hondartza futbol zelaian, 11:30ean.



• Ifigo Martin (Tolosa)  
• Karnele Pagola (Alegia)

**AKABA BERA BERA  
Elche-Mustang**

Maiatzak 9 • **Larunbata** • 19:00etan  
Donostiako Bidebieta Kiroldegian

## saridunak

• Ines Berasategi (Tolosa)

**ATE JOKA  
antzeziana**

Maiatzak 9 • **Larunbata**  
20:30ean • Tolosako Leidorren



sarrerak



HITZAK harpidedunentzat  
2 sarrera pare ditu

Ibarrako  
**Garagardo Festan**  
afaltzeko

Asteburu honetan 18:00etatik aurrera!

sarrerak eskuratzeko deitu GAUR 09:00etatik 17:00etara: **943-65 56 95**

sarrerak leihatilan bertan izango dituzte

TXOKOA hitza



Aresoko Eskolako ikasleek Giza Gorputzaren Museoa antolatu zuten eskolako gimnastika gelan. ASIER IMAZ

## Eskolako ikasleek Giza Gorputzaren Museoa erakutsi diete gurasoei

**Areso** » Hilabete eta erdian gogor lanean aritu ondoren atzo gurasoak gonbidatu zituzten Museora Eskolako ikasleek.

ASIER IMAZ

Eskolako gimnasioan Museoa jarri dute Aresoko 3., 4., 5. eta 6. mailako ikasleek. Gurasoentzat eta herritarrentzat atekatzeko zabaldu zituzten. Hauek seme-alaben deialdiari bikain erantzun zioten eta bertara gerturatu ziren.

### «Lan txalogarria»

Dirudienez aresoarrak, eskolatik egindako irteera batean, Iruñera joan omen ziren giza gorputzaren erakusketa bat ikustera. Han ikusitakoak ideia sortu zien: «Zergatik ez dugu guk horrelako bat egiten?». Esan eta egin.

Hilabete eta erdian ikasleek «lan txalogarria» egin dute. Horren



Ikasleek gurasoei azalpenak eskaini zizkieten Giza Gorputzaren Museoa. A.I.

emaitza atzo aurkeztu zuten gimnastika gelan. Bertan hainbat areto sortu zituzten: bideo gela, gela anitz... Gune huts guztia giza gorputzaren inguruko jakintzarekin bete zuten: ibil aparatua, nerbio sistema, arnas aparatua, dastamena, ikusmena, ukimena, erradiografiak, mendian aurkitutako hezurak... Behin elementuak bere

lekuan kokatuta, ikasle gazteak zutik jarri eta giza funtzioak esplikatzen hasi ziren guraso eta bisitarien aurrean.

Dastamenarekin lotuta umorez amaitu zuten museo jarduera: «Nork jaten du gustukoen belarra, ardiak ala behiak? Behiak noski. Ardiak jatean *bee* egiten du eta behiak *mmm*».



## Herriko boluntarioen omenez topa

**IBARRA** » Ibarako VI. Garagardo Festaren zinta atzo moztu zuten. Ohi bezala herritarrak omendu zituzten hasiera ekitaldi honetan. Aurtengoan talde bezala Bartolari egin diote gorazarre, herritar bezala boluntarioei, «Garagardo Festan eta urte guztian zehar herri-giroa jartzen egiten duten lanagatik». Garagardo Festa igandera arte egongo da zabalik. A.I.

## Areso etzi lur gaineko sokatira txapelketan

A. IMAZ

Aresoko sokatira taldeko kideak, 680 kilotan, etzi hasiko dira lanean. Hilaren 16an Azkoitiara joango dira eta finala 23an izango da Endoian.

### Bost talde, bost maila

Lur gaineko Euskal Herriko Sokatira Txapelketa etzi hasiko da Berriatuko (Bizkaia) udaletxearen atzealdeko zelaian. Guztira hamabisaio jokatuko dira, hamaika aste-burutan.

Tiratzeko lekuei dagokienez

Berriatuan, Endoian, Laukizen eta Mungian egingo dira. Maetzun eta Billelan ere jokatuko dira saioak.

Iazkoarekin alderatuta, aurtren 560 kiloko izango da jokatuko diren pisuen artean, iaz 580koa jokatuko baitzen. Hortaz, 560, 600, 640 eta 680 kilotan ariko dira tiralariak lehian. Iaz bezala, aurtren ere gizon-erakundeak ariko dira soilik, ez baita emakumezko talderik sortu. Lehian iazko bost taldeak ariko dira: Gaztedi (Laukiz), Goiherri (Erandio), Getxo, Mutriku eta Areso.

**@ IX. HITZA argazki lehiaketa.** Sartu gure webgunean argazki lehiaketaren finalistak jartzen duen atalean. Bertan finalera iritsi diren zortzi argazkiak ikusteko aukera izango duzu. Horrekin batera argazki bakoitza non ateraden jakingo duzu, egilearen aipamenekin batera. Ez da ahaztu behar IX. HITZA argazki lehiaketaren irabazlea irakurleek aukeratu dutela. Sartu beraz gure webgunearen atal honetan eta hautatu zure iriztarian nork merezi duen aurtengo lehen saria:

[www.tolosaldekohitza.info](http://www.tolosaldekohitza.info)

## Iragarki laburrak

### SALGAI

■ **Pottokak.** Bi pottoka eme salgai. Harremanetarako telefono zenbakia: 669 92 86 78.

### ALOKAIRUA

■ **Baseria.** Borda edo baserri bat alokairuan hartuko genuke. Egorak berdin dio. Merkea. Harremanetarako telefono zenbakia: 634 45 9110.



Asteartean, maiatzak 12, 10:30ean

**NEREA SANCHO**  
sexologoarekin  
elkarrizketa digitala

**Bidali zure galdera!**

HITZAren erredakzioan izango da zuzenean zure galderak erantzuteko. Aurrez ere zure galderak bidali ditzakezue gure webgunean.

[www.tolosaldekohitza.info](http://www.tolosaldekohitza.info)

webgunean





GOIZA	EURIA
ARRATS.	EURIA
BEROENA	18°
HOTZENA	11°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.  
**Anoetalea:** 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko hitza.info.  
**Ibarraldea:** 687 410 032. ibarraldea@tolosaldeko hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.  
**Leitzaldea:** 687 410 118. leitzaldea@tolosaldeko hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agurrak



### Urte askoan Manex!

Onddo Gazte Asanbladan ez gaude denok!  
Besarkada handi bat!



**Zorionak Manex!**

**Gora Euskal Herriko Nexka Gazte Errebeldeak!**

agurrak

urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberririk  
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak

### » GUARDIAKOFARMAZIAK

- **Tolosa.** Olarreaga, M. Martin Jose Iraola, 10. 943 672438.
- **Leitza.** Campos, M.Z. Elbarren, 52. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunik.

## LURRALDEBUS

José Juan, 19 urte

"Oposizioak egitetik dator. Ez du gau osoan lorik egin eta orain lanera joan beharra du."

Jatorria: Lasarte-Oria  
Norakoa: Donostia Amara

Angel, 57 urte

"Bilera batera doa. Jose Juanen aldetara da eta beti lekuak leku gaitzen sentar bar du."

Jatorria: Tolosa  
Norakoa: Donostia Amara

www.lurraldebusekoistorioak.com

**GIPUZKOA**  
zurekin, aurrera



ate irekia:  
maiatzak 9,  
9:30etatik  
12:00etara

Goierri  
Lanbide Eskola,  
Dost Aragoi  
beteterean  
asmatzen da

1. Aukera zabalena
2. Etorkizuneko
3. Enprekin elkarlanean
4. Zuretzat egina
5. Ikasteko eredu aurreratua

batxilergoa eta heziketa zikloak egiteko biderik onena

La granja auzoa, z/g. / 20240 ORDIZIA / 943 88 00 62 / www.goierrieskola.org